

HELDU DEN MAIATZAREN 28KO UDAL HAUTESKUNDEETARAKO JARRAIBIDEAK

Apirilaren 3ko 207/2023 Errege Dekretuak, zeina gaur argitaratu baita, apirilaren 4an (80. EAO), udal hauteskunderen deialdia egin du heldu den maiatzaren 28rako.

Une honetatik aitzin, hauteskunde-prozesuak berezkoak dituen jardun askoren epe kontaketa hasi da, besteak beste, hautagai-zerrendak aurkezteko epeena, hauteskunde-errola jendaurrean jartzekoa eta hauteskunde-mahaiak osatzekoa, etab.

Kontuan hartu behar da, **100 biztanle arteko udalerrietan**, zuenean kasu, hiru zinegotzi hautatzea egokitzen zaiela, salbu eta, kontzeju irekiaren araubideari heltzen jarraitzea erabaki bazen Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 29. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak aldatu eta gero.

Bestalde, gogoan izan behar dugu maiatzaren 27an bukatuko dela egungo udalkideen agintaldia. Horrenbestez, egun horretatik aitzin eta hautetsi berriek beren kargua hartu eta tokiko udalbatzak eratu arte, udalek jardunean jarraituko dute administrazio arrunteko aferetarako soilik, eta sekula ez dute gehiago kualifikatua behar duen erabakirik hartuko.

Garrantzitsua da kontuan hartzea ezen, **udal hauteskundeak egin arte** debeku dela obrak edo zerbitzu publikoak edo horien proiektuak inauguratzeko ekitaldirik egitea, edozein dela ere ematen zaion izena, ezertan galarazi gabe obra edo zerbitzu horiek funtzionamenduan has daitezkeela delako epe horretan. Epe horretan, halaber, debeku da ekitaldirik antolatu edo finantzatzea (zuzenean nahiz zeharka), lortutakoaren aipamenik egiten duenik edo hauteskunde kanpainan erabiltzen diren adierazpenik eta irudirik edo antzekorik erabiltzen duenik.

Maiatzaren 27a hausnarketa eguna da eta, hortaz, guztiz debeku da hauteskunde propagandarik zabaltzea edo kanpaina ekitaldirik egitea.

Segituan, informazio gehiago zehaztuko dugu hautagai-zerrendak aurkezteari eta hauteskunde-prozesuari dagokionez udalak dituen betebeharren gainean.

1.- HAUTAGAI ZERRENDAK AURKEZTEA

Alderdiez, koalizioez eta alderdien federazioez gain, beren hautagai-zerrenda aurkez dezakete hautesle-elkarteek ere. Azken horiek udalerriko hautesle-errolan izena emana duten hautesleen sinadura-kopuru bat behar dute, eta sinadura horiek notarioak edo udaleko idazkariak egiaztatuko ditu.

Zure udalerrian, elkarteren hautagaitza abalatzeko, 7 sinadura behar dira gutxienez, zeren, kasu guztietan, hautatu beharreko zinegotzien kopurua halako bi baino gehiago behar baitira.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, Hauteskunde Batzorde Zentralaren azaroaren 23ko 1/2022 Jarrabidea, zeinak hautesle-elkarteek udal hauteskundeetara aurkeztu behar dituzten abalak sinadura elektronikoaren bidez ziurtatzeko prozesua ezartzen baitu. Kasu horretan, udalak baliozkotzat jotzen dituen sinadura elektronikoko prozedura baten bidez egin ahalko da eta idazkaria izango da sinadura baimendu beharko duena. Horretarako, Udalak egoitza elektronikoa jarri beharko du udal hauteskundeetan hautesle-elkarteek abalak aurkezteko baliozkotzat jotzen dituen sinadura elektronikoko sistemen zerranda.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan xedatuarekin bat, alderdiek, federazioek, koalizioek edo hautesle-elkarteek ezin dute hautagaitzarik aurkeztu baldin eta judizialki legearen kontrakotzat jo eta desegin edo bertan behera utzitako alderdi politiko baten jardunari jarraitzen badiote edo hura ordezkatzeko badute. Ondorio horietarako, kontuan hartuko da funtsezko antzik dagoen hautagaitzak zuzendu, ordezkatu edo administratzen dituzten pertsonen egituren, antolamenduaren eta funtzionamenduaren artean, edo finantzabideen edo baliabideen jatorriaren artean, edo beste edozein gauza aipagarriak badagoen, jarraipen hori edo ordezkatzeko hori badagoela pentsatzeko bide ematen duenik, hala nola indarkeria edo terrorismoa babesteko jarrera.

Kontuan hartu behar da, halaber, 3.000 biztanletik gorako udalerrietan nahitaezkoa dela **gizonek eta emakumeek parekotasuna izatea hautagaitzetan**, halako eran non sexu bakoitza gutxienez %40 izanen baita zerrendan, bat eginik Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoan sartutako 44 bis artikuluekin. Aginduak zehazten duenez, %40ko gutxieneko proportzioari eutsi behar zaio bost postuko tarte bakoitzean. Orobat, zerrendaren azken tarteak bost posturik ez duenean, emakumeen eta gizonen arteko parekotasun hori ahalik eta gehien hurbilduko da orekara, nahiz eta zerrenda osorako eskatzen den proportzioari eutsiko zaion. Gainerako udalerriei dagokienez, zerrenda paritarioak kontuan hartzen ahal dira hautagai-zerrendak eratzean.

Hautagai-zerrendak apirilaren 19tik 24ra bitarte aurkeztu behar dira, biak barne, zein bere Eskualdeko Hauteskunde Batzordean. Kasu guztietan, aurkezpen-idazkiak honako hauek jaso behar ditu:

- a. Argi eta garbi adierazi behar dira alderdiaren, federazioaren, koalizioaren nahiz talde sustatzailearen izena, siglak eta ikurra.
- b. Gehienez hiru hautagaien izen-abizenak.
- c. Hautagaiak hautagai-zerrenda onartzen dutela dioen aitortpena.
- d. Hautagaiak hautagarriak direla egiaztatzen duen dokumentua.
Horri dagokionez, esan behar dugu ezen, azken udal-hauteskundeetan bezala, hautagarriak izan daitezkeela, Espainiako herritarrekin batera, Espainiako nazionalitatea ez izanik ere, Europar Batasuneko herritar izaera duten eta Espainian bizi diren pertsonak, eta, halaber, itun bitartez beren herrialdeko udal-hauteskundeetan espainiar

herritarrei hautagai izateko eskubidea ematen dieten herrialdeetako herritarrak. Horrenbestez, Hauteskunde Batzorde Zentralak berak emandako jarraibideen arabera, komenigarria da batzuek eta besteek aurkeztu beharreko dokumentuak adieraztea.

1.- Espainiako herritarrei dagokienez:

- Hautagai bakoitzaren nortasun-agiriaren fotokopia soil.
- Hautagai bakoitzak paper arruntean sinatutako idazkia, non zinpean aitortuko baitu ez duela inolako ezgaitasunik hautagai izateko, eta ez dagoela hautatua ez izateko arrazoirik. Halaber, berariaz onartu beharko du bere hautagaitza. Aipatu idazkia idazki bakar bat izan daiteke, hautagai guztiek sinatua, edo hautagaiek sinatutako idazki bana. Bietan ere, onartuko da idazki bakar batean nahiz bakoitzak bere idazkian egitea aipatutako zinpeko adierazpenak eta hautagaitzaren onarpena.

2.- *Europar Batasuneko herritarrei dagokienez eta beren herrialdeko udal-hauteskundeetan espainiar herritarrei hautagai izateko eskubidea ematen dieten herrialdeetakoak diren eta Espainian bizi diren herritarrei dagokienez.*

- Hautagaiaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia arrunta.
 - Hautagaiak sinatutako adierazpen formala, non jasoko baitira: hautagaiaren nazionalitatea, Espainian duen helbidea, hautagaiak ez duela gabetua bere jatorriko Estatuan hautagai izateko eskubidea, eta jatorrizko herrialdean izan duen azken helbidea.
 - Espainian hauteskundeetan botoa emateko eskubidea gauzatu nahi duela adierazitakoarekin bat, hautesle-errolan izena emana duela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- e. Hautesle-elkarteen kasuan, haiek sustatzen dituztenen pertsonen egiaztatzea. Lehenago adierazi da 7 sinadura behar direla halakoetan (zure udalerrian, esaterako).
- f. Hautesle-elkarteen kasuan, hautagai-zerrendaren ordezkariaren izendapena.

Ordezkararen eginkizunak izanen dira:

- Hauteskunde-mahaietarako artekariak izendatzea eta akreditatzea. Izendapena hauteskundeak baino hiru egun lehenago arte egin daiteke. Artekaria izateko, hauteslea izan eta hautesle-errolan izena emanda egon behar da. Nolanahi ere, beste hauteskunde batzuetan ez bezala, ez da nahitaezkoa izanen izena emanda egotea beren eginkizunak beteko dituzten hauteskunde-barrutiko errolan. Hauteskunde Batzorde Zentralaren urtarrilaren 23ko 1/2019 Jarraibidearekin bat, zeina artekariaren botoari buruzkoa baita hauteskunde-prozesu batzuk batera egiten diren kasuetan, artekariak zer mahaitan dauden akreditaturik, horretan eman beharko dute botoa, betiere deitutako prozesu guztietan bozkatu behar duen hauteskunde-barrutiaren barnean badago mahai hori, eta hori betetzen ez bada prozesuetako batean, ordea, posta bidez bozkatu beharko du guzti-guztietan.

- Ahalduna izendatzea, hautagaitzaren ordezkariak izan dezan hauteskundeetako ekitaldietan eta operazioetan (adinez nagusi den edozein herritar izan daiteke ahalduna, baldin eta bere eskubide zibil eta politikoak indarrean baditu).

Hautesle-elkarteek, hautagai-zerrenda aurkeztu eta hurrengo bi eguneko epean, taldearen administratzailea izenda dezakete Probintziako Hauteskunde Batzordearen aitzinean. Kargu hori adinez nagusi den edozein herritarrek bete dezake, eskubide zibil eta politikoak indarrean baditu.

1/2003 Lege Organikoaren bosgarren artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ezin izanen dira hauteskunde-artekari izendatu kondenatuak izan direnak epai bidez, hura irmoa ez izanik ere, matxinada edo terrorismo delituengatik nahiz Estatuko instituzioen aurkako delituengatik, baldin eta epaiak, zigor-legedian ezarritako baldintzetan, hautagai izateko eskubidea gauzatzeko gaitasungabetzea ezarri badie.

Hautagaitzaren ordezkaria ere izan daiteke administraria. Haren eginkizuna da hautagaitzaren kontabilitatea eramatea hauteskunde kanpaina, Kontabilitatearen Plan Orokorrekin bat, kanpaina egin gastuengatik ematen diren dirulaguntzak lortzeko geroago.

Administrariak banku kontu bat ireki behar dute, hauteskunde kanpainako funts guztiak hor sartzeko, eta, haren bitartez, administrariak ordainketa guztiak egiten ditu. Probintziako Hauteskunde Batzordeari jakinarazi behar zaio kontua ireki dela, ireki eta hurrengo hogeita lau orduko epean. Hauteskundeak egin eta ehun egunetik ehun eta hogeita bostera bitarteko epean (irailaren 5etik 30era), alderdiek, koalizioek edo elkarteek, dirulaguntzak jasotzeko betebeharrak konplituak badituzte edo aurrerapenak eskatuak badituzte dirulaguntzen kargura, kontabilitate zehaztua eta dokumentatua aurkeztuko dute modu telematikoa Kontuen Auzitegian, hura fiskalizatzeko eta gero kasuan kasuko dirulaguntza ordaintzeko.

Apirilaren 26an argitaratuko dira NAOen aurkeztutako hautagaitza guztiak.

Maiatzaren 2an argitaratuko dira, NAOen ere, onartutako hautagaitzak.

➤ HAUTESKUNDE GASTUAREN MUGA

Garrantzitsua da kontuan izatea zein den hauteskunde gastuaren muga eta zer zehapen ezar daitekeen hura gainditzeagatik.

Hauteskunde-barruti bakar batean aurkeztzen diren hautesle-elkarteak edo alderdi txikiak daude muga horiek ukituta nagusiki, zeren, hauteskunde gastuaren gehieneko muga kalkulatzeko, 0,11rekin biderkatu behar baita biztanle kopurua. Muga orokor horren barnean, sartuta daude kanpoko publizitatearen gastuak eta prentsa eta irratiaren publizitatearenak, zeinek ezin izanen baitute gastuaren gehieneko mugaren %20 gainditu.

Muga horiek %10 edo gehiago gainditzea oso arau-hauste astuntzat jotzen da, astuntzat %3tik %10era bitarte gainditzeko bada, eta arintzat, %1etik %3ra bitarte gainditzeko bada. Arau-hauste horiek 50.000, 25.000 edo 5.000 euroko isunak ekarriko dituzte gutxienez, hurrenez hurren.

Halaber, kontuan hartu behar da hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera jasotzen diren dirulaguntzak (270,90 euro hautatutako zinegotzi bakoitzeko eta 0,54 euro lortutako boto bakoitzeko) ezin dira handiagoak izan aplikatu beharreko gastu muga baino.

Ondoko estekan argibide gehiago daude ikusgai gai horren inguruan.

<http://www.juntaelectoralcentral.es/cs/jec/documentos/FolletoTCuGastosElectorales.pdf>

Bestalde, gogoan izan behar da Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 376. artikulua (Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzearen 4ko 4/2019 Foru Legeak ematen dion idazketari jarraiki) honakoa aurreikusten duela: hautesle-elkarteak elkartzeko aukera dutela, Eskualdeko Batzordeko kideen izendapenaren ondorioetarako, eskualdeak legegintzaldi honetan eratuko balira. Udal hauteskundeak egin baino lehen jakinarazi behar zaio elkartzeko asmo hori Hauteskunde Batzordeari, idatziz.

2.- UDALAREN BETEBEHARRAK HAUTESKUNDE PROZEDURAN

- Hauteskunde-kanpainako ekitaldiak antolatzeko lokal ofizialak eta doako erabilerako leku publikoak gordeko dituzte (eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar zaio apirilaren 5etik 14ra bitartean), baita kartelak paratzeko doako leku bereziak ere (eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar zaio apirilaren 5etik 11ra bitartean).
- Udalek zerbitzu bat eduki behar dute martxan kasuan kasuko udalerrian indarra duten hauteskunde zerrendak kontsultatzeko, zortzi eguneko epean, apirilaren 10etik 17ra. Baliabide informatikoen bidez egiten ahalko da kontsulta, interesduna identifikatu ondoan, edo hauteskunde-zerrendak jendaurrean paratuz, beharrezko baliabide informatikoak eduki ezean.
- Epe horretan, edozeinek erreklamazioa egiten ahal dio Hauteskunde Erroldaren Bulegoko probintziako ordezkari bere erroldako datuen inguruan. Udalen bitartez egin daitezke erreklamazio horiek, zeinek kasuan kasuko ordezkariara igorriko baitituzte segituan.
- Hauteskunde-mahaiak osatuko dituzte apirilaren 29tik maiatzaren 3ra bitartean, zozketa publiko bitartez eta eskualdeko hauteskunde-batzordeak gainbegiratuta.
- Udalek behar bezala seinaleztatu behar dituzte hauteskunde atal eta mahai bakoitzari dagozkion lokalak.

3.- HAUTESKUNDE KANPAINA

Hauteskunde-kanpainak hamabost egunez iraunen du, ostirala den maiatzaren 12ko gauerdiko zeroetatik ostirala den hil bereko 26ko gauerdiko hogeita lauak arte. Epe horretatik kanpo, debeku da ezein hauteskunde-propagandaren ekintzarik egitea.

4.- HAUTESKUNDE MAHAIAK ERATZEA, BOZKATZEA ETA ZENBAKETA

Hauteskunde-mahaia maiatzaren 28ko goizeko zortzietatik zortzi eta erdietara eratuko da, honako hauekin: mahaiburua, mahaikideak eta hautagaitzetako ordezkariak behar bezala akreditatutako artekariak.

Mahaia eratzeko akta zortzi eta erdietan bete beharko da.

Bozketan, une oro, bi mahaikide egonen dira.

Bozketa goizeko bederatzietan hasiko da, eta arratsaldeko zortziak arte iraunen du, etenik gabe.

Bozketa sekretua da, eta hautesleak bi boto eman ditzake gehienez aurkeztu eta onartu diren hautagai guztien artean.

Hauteskunde-mahaietan egiten den zenbaketa publikoa da, eta zenbaketa horren akta bete behar da, hauteskunde-legediak ezarritako terminoetan.

Eskualdeko hauteskunde-batzordeak eskumena izanen du zenbaketa orokorra eta hautagai-hautetsien izendapena egiteko, hau da, botorik gehien lortzen dituztenak izendatzeko hiri zinegotzi izan arte.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Federazioaren web orrian jaso dezakezue (<https://www.fnmc.es/eu/>) “[2023ko Udala eta Kontzejuetako hauteskundeak](#)” izeneko atalean. Bertan, hauteskunde-egutegia aurki daiteke, bai eta hauteskundeei buruzko hainbat informazio ere, unean-unean eguneratuko dena.